

E ditorial

La sección de *Actualidad Fiscal* del presente número de Zergak contiene las disposiciones normativas de naturaleza tributaria más relevantes aprobadas en cada uno de los Territorios Históricos desde el pasado mes de diciembre de 2008. Los comentarios a estas disposiciones, elaborados por los servicios de normativa tributaria o política fiscal de cada una de las Diputaciones Forales, nos acercan a su contenido.

A subrayar dentro de estas normas, las medidas tributarias aprobadas de cara al ejercicio 2009, entre las que, en el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, cabe citar las diversas actualizaciones de las cuantías que delimitan el carácter subjetivo del impuesto, reducción por tributación conjunta, deducción general y deducciones personales y familiares, así como la deflactación de la tarifa del impuesto. Asimismo se adoptan diversas medidas tendentes a flexibilizar la regulación de las cuestiones relacionadas en este impuesto con la vivienda, dada las delicadas situaciones personales provocadas por la evolución del mercado inmobiliario y de los tipos de interés.

Sin embargo, por su calado, la modificación más importante producida en nuestro sistema tributario la constituye sin duda la supresión del Impuesto sobre el Patrimonio en los Territorios de Álava y Bizkaia, no sólo por el hecho en sí que supone la desapa-

Zergak aldizkariaren zenbaki honetan, *Zergak gaur egun* atalean lurralde historikoetan 2008ko abenduaz geroztik zergen arloan onartu diren xedapen arauemailerik garrantzitsuenak bildu dira. Foru aldundi bakoitzean zergen arloko arauetz edo zerga politikaz arduratzen den zerbitzuak bere esparruko xedapenak azaldu ditu, zertan eragingo duten argitu nahian.

Xedapen horien artean, 2009ko ekitaldirako onartu diren zergen arloko neurriak nabarmendu behar dira. Zerga zehatzetara etorrira, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren arautegian, esaterako, ondokoak zehazteko aplikatzen diren zenbatekoak eguneratu dira: kargapeko subjektua izatea, baterako ordainketagatiko murrizketa, kenkari orokorra eta familia kenkariak, eta Zergaren tarifaren deflaktazioa. Halaber, hainbat neurri ezarri dira zerga horren ordainketaren arautegia malgutzeko etxebizitzari dagokionez, kontuan harturik nola aldatu duen egoera higiezinaren merkatuaren eta korritu tasen bilakaerak.

Hala ere, eraginaren aldetik gure zerga sisteman egin den aldaketarik garrantzitsuen Araban eta Bizkaian gertatu da, bi lurralde horietan Ondarearen gaineko Zerga ezabatu baita. Izan ere, kontua ez da berez zerga hori, aspaldion Europan

rición de esta figura tributaria, en franca regresión en Europa, sino por su mantenimiento en uno de los Territorios, el Territorio Histórico de Gipuzkoa, lo que ha provocado una situación insólita desde la entrada en vigor de los modernos Concierptos.

Debe resaltarse asimismo la modificación operada en los reglamentos del Impuesto sobre Sociedades encaminadas a facilitar la aplicación de la deducción por actividades de I+D+i a las sociedades sujetas a la normativa foral del impuesto.

Esta modificación tiene su origen en el acuerdo alcanzado en esta materia entre SPRI, Sociedad para la Promoción y Reconversión Industrial, dependiente del Gobierno Vasco y las tres Haciendas Forales el pasado 29 de abril de 2009, importante aportación en el ámbito de cooperación interinstitucional.

Así, las empresas vascas pueden solicitar a SPRI la emisión de Informes Técnicos de Calificación sobre los proyectos de I+D+i que se encuentren desarrollando. La emisión de este informe por parte de SPRI, vinculará a la Administración tributaria en lo que se refiere a la naturaleza y calificación de la actividad como investigación, desarrollo o innovación.

Los proyectos que se han presentado a través de la web de Spri para acceder y ser beneficiarios de las ayudas de programas relativos a I+D del Departamento de Industria e Innovación del Gobierno Vasco (1.400 proyectos aproximadamente), recibirán directamente su informe. El resto de las empresas que deseen recibir el mencionado Informe Técnico, deberán cursarlo por medio de la página web de Spri, antes del 31 de diciembre, con el fin de disponer, en su caso, del informe antes de la finalización del plazo de presentación del Impuesto de Sociedades. La evaluación y posterior informe es un servicio de carácter gratuito que Spri oferta a las empresas vascas. El objetivo tanto de SPRI como de las instituciones forales, es incentivar, impulsar y fomentar las actividades de investigación, desarrollo e innovación en las empresas vascas.

atzeraka ari dena, ezabatu izana, baizik eta Gipuzkoako Lurralde Historikoan mantentzea, ondorioz gaur egungo egoera aro modernoan kontzertuak indarrean jarri zirenetik inoiz ez bezalakoa da eta.

Horrez gainera aipatu behar da Sozietateen gaineko Zergaren araudietan aldaketa bat egin dela Zergaren foru araudiei lotutako sozietateek errazago aplikatu ahal izan dezaten I+G+b jarduerengatikoenkaria.

Aldaketa horren eragilea Eusko Jaurlaritzaren mendeko Industriaren Sustapen eta Eraldaketarako Baltzuak (SPRI) eta hiru foru aldundiek 2009ko apirilaren 29an sinatutako akordioa izan da. Akordio hori funtsezko ekarpena izan da erakundeen arteko lankidetzarako.

Horren arabera, euskal enpresek prestatzen ari diren I+G+b proiektuak kalifikatzeko txosten teknikoak eskatu ahal izango dizkiote SPRIri. SPRIk halako txostena ematen duenean, bertan ezarritakoa loteslea izango da Zerga Administrazioarentzat, jarduera ikerketakoa, garapenakoa edo berrikuntzakoa den argitzeari dagokionez.

SPRIren web orriaren bitartez 1.400 proiektu inguru aurkeztu dira Eusko Jaurlaritzako Industria eta Berrikuntza Sailak I+G programetarako ematen dituen laguntzak jasotzeko; horiek guztiek zuzenean jasoko dute txostena. Aipatutako txosten teknikoa jaso nahi duten gainerako enpresek eskaera aurkeztu behar dute SPRIren web orriaren bitartez abenduaren 31 baino lehen. Horrela, Sozietateen gaineko Zergaren aitortpena aurkezteko epealdia amaitu aurretik eduki ahal izango dute esku artean. SPRIk dohain eskaintzen dizkie euskal enpresei ebaluazioa eta txostena. SPRIren zein foru erakundeen helburuak dira euskal enpresetan ikerketa, garapena eta berrikuntza sustatzea, bultzatzea eta laguntzea.

También se han producido a lo largo de este periodo modificaciones relevantes en la imposición indirecta. El año se ha abierto con la incorporación del sistema de devoluciones mensuales en el Impuesto sobre el Valor Añadido, sistema que amplía a todos los contribuyentes la posibilidad de recuperar los excesos de IVA soportado sobre el devengado con periodicidad mensual, lo que implica una importante mejora financiera respecto de la regulación previa de las devoluciones en este impuesto.

A destacar asimismo el incremento de los tipos del Impuesto sobre las Labores del Tabaco y del Impuesto sobre Hidrocarburos el pasado mes de junio, impuestos que conjugan una gran potencia recaudatoria con objetivos extratributarios, sanitarios y medioambientales.

Otra noticia que debe destacarse es el pronunciamiento que el Tribunal de Primera Instancia de las Comunidades Europeas confirmando las decisiones de la Comisión sobre determinadas medidas tributarias vascas en el Impuesto sobre Sociedades calificadas como ayudas estatales incompatibles con el mercado común. Debe puntualizarse que nuestras haciendas no cuestionaban ya en este procedimiento la calificación de las medidas como ayudas, calificación que en materia tributaria ha sufrido una evolución constante a lo largo de estos años. Se cuestionaba únicamente la obligación de la recuperación de las ayudas, dadas las circunstancias que rodearon a estos expedientes, fundamentalmente la duración de la fase de examen preliminar de alguna de las medidas, más de seis años y medio entre el momento en que la Comisión tuvo conocimiento de los regímenes de ayudas controvertidos y el momento en que inició el procedimiento de investigación formal en el caso de las medidas de 1993. Considera el Tribunal que tal duración no vulneró los principios de seguridad jurídica y de buena administración, imputando la responsabilidad de esta dilación a las autoridades nacionales, quienes,

Aurrekoetz gainera, zeharkako zergetan ere aldaketa garrantzitsuak gertatu dira hizpide dugun aldian. Urteko lehen aldaketa hauxe izan da: Balio Erantsiaren gaineko Zergan hileko itzulketen sistema ezarri da; horri esker zergadun guztiek hileru berreskuratu ahal dituzte BEZaren kargatik jasandako gehiegizko kopuruak. Aldaketa honek finantza hobekuntza nabarmena ekarriko du Zergaren itzulketei buruzko aurreko erregulazioarekin alderatuta.

Gainera, joan den ekainean Tabakoaren gaineko Zergaren eta Hidrokarburoen gaineko Zergaren tasak gehitu ziren. Bi zerga horiei esker diru asko biltzen da, eta gainera finantzakoez aparteko beste helburu batzuk ere badituzte osasunaren eta ingurumenaren arloetan.

Beste alde batetik, aipatu beharrekoa da Europako Erkidegoetako Lehen Auzialdiko Auzitegiak berretsi egin dituela Batzordeak EAEn Sozietateen gaineko Zergari buruz indarrean jarritako neurri batzuez emandako ebazpena. Hau da, Auzitegiak berretsi du estatu laguntzak direla eta bateraezinak direla merkatu bateratuarekin. Hori dela-eta argitu behar da gure ogasunek ez dutela ezbaian jartzen laguntzen kalifikazioa. Izan ere, aspaldiko urteotan haien kalifikazioa behin eta berriro aldatu da zergen arloan. Aitzitik, gauza bat bakarrik zegoen auzitan, laguntzak berreskuratu beharra, espediente horietan izan ziren inguruabar bereziak kontuan edukita, batez ere neurri batzuen aurretiazko azterketaren fasearen iraupena. Hain zuzen ere, sei urte eta erdi baino gehiago igaro dira Batzordeak ika-mikak sortu dituzten laguntzen araubideen berri jakin zuenetik ikerketa formala abiarazi zuen arte (1993ko neurriak). Auzitegiaren ustez bi gertaeren artean hainbeste denbora pasatu izanak ez zituen urratu segurtasun juridikoaren eta administrazio onaren printzipioak, luzapenaren errua, bere ustez, nazio agintaritzarena izan baitzen. Auzitegiaren hitze-

en palabras del Tribunal, no aportaron a la Comisión las informaciones oportunas que ésta les solicitó.

El apartado de actualidad dedicado a la Unión Europea comienza en el ámbito de la imposición directa con el informe de la Comisión del pasado mes de abril sobre la aplicación de la Directiva sobre intereses y cánones, Directiva 2003/49/CE, analizando particularmente la transposición de esta Directiva a la normativa de cada uno de los Estados miembros. Este análisis va a provocar sin duda algunas precisiones en la Directiva que forzarán su modificación y posterior adaptación.

En materia de IVA debe destacarse la preocupación, tanto de las propias Instituciones comunitarias como de los Estados miembros, por mejorar los medios y la comunicación entre los Estados miembros para luchar contra el fraude en este impuesto. Nadie duda de que debe existir una estrategia de lucha contra el fraude a nivel comunitario, tanto desde el ámbito normativo como desde el ámbito de la pura gestión del impuesto. Más difícil es consensuar las medidas concretas que deben adoptarse, aunque se están produciendo avances en esta materia. Debe reseñarse también el acuerdo alcanzado sobre aplicación de tipos reducidos en servicios con gran intensidad de mano de obra, para los que actualmente se permite una aplicación temporal de tipos reducidos hasta el final de 2010, y la inclusión de nuevos servicios a los que es posible aplicar estos tipos, entre los que se encuentran los servicios de restauración.

Los Impuestos Especiales son también objeto de continuo análisis desde el ámbito comunitario. Se ha alcanzado un acuerdo para la modificación de la normativa comunitaria tendente a luchar contra el fraude en estos impuestos mediante la implantación de un nuevo sistema de control de los movimientos y operaciones de los bienes sujetos a estos impuestos.

En el ámbito de la cooperación, se han realizado diversos avances que han cristalizado, en junio de 2009,

tan, nazioko agintariek ez zioten aurkeztu neurriez eskatutako informazioa.

Europar Batasuneko berrien ataleko lehen gaia zuzeneko zergei dagokie: Batzordeak korrituei eta kanonei buruzko 2003/49/CE Zuzentarauaren aplikazioari buruz joan den apirilean emandako txostena. Bertan Zuzentaraua Batasuneko estatu bakoitzeko arautegian nola txertatu den aztertu da. Azterketa horrek Zuzentarauko puntu batzuk zehaztu beharra ekarriko du, hots, gauza batzuk aldatu eta moldatu beharra.

BEZari helduta, Batasuneko erakundeek eta estatuak berek zerga honen ordainketan gertatzen den iruzurraren kontra egiteko baliabideak hobetu nahi dituzte, bai eta estatu kideen arteko komunikazioa ere. Denek dute argi Batasunaren eremu osoan bateratuta egin behar zaiola aurre zerga honen iruzurrari, bai araudietan, bai Zergaren kudeaketan. Hala ere, aurrerapausoak eman arren, zail dute aplikatu beharreko neurriak zehazten. Halaber, aipatu behar da akordioa lortu dela tasa murriztuak aplikatzeko eskulan ugariko zerbitzuetan (alegia, gaur egun eta 2010 amaitu arte tasa murriztuak aplikatzea onartzen den zerbitzuetan) eta halako tasak zerbitzu gehiagotan aplikatzeko (jaketxeetan, esaterako).

Batasunak etengabe ikertzen ditu zerga bereziak ere. Akordioa lortu da zerga horien ordainketan gertatzen den iruzurraren kontra egiteko Batasunean aplikatzen den arautegia aldatzeko. Hain zuzen ere, zerga horien karga-pekko ondasunen mugimenduak eta haiekin egiten diren eragiketak kontrolatzeko sistema berria ezarriko da.

Lankidetzaren arloan hainbat aurrerapen egin dira eta 2009ko ekainean ondorio-testu batean

en un texto de conclusiones sobre esta cuestión.

Entrando ya en el apartado de Estudios y colaboraciones del presente número de Zergak, dos de las tres colaboraciones están relacionadas, si bien en distinto grado, con la Junta Arbitral del Concierto Económico, institución que comenzó su efectiva andadura en abril del pasado año.

En el primero de ellos, bajo el título "La Junta Arbitral del Concierto Económico: pasado, presente y futuro", Isabel Alonso Anduiza y Luis J. Izquierdo Pérez, licenciados en Derecho y técnicos del Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Gipuzkoa, analizan la figura de la Junta Arbitral del Concierto Económico, como órgano arbitral al que se ha encomendado la solución de discrepancias entre Administraciones que atañen a éste. En el artículo, se analizan en primer lugar los antecedentes históricos relativos a la solución de conflictos entre Administraciones en los Concierdos anteriores a 1981, para posteriormente analizar la evolución de la regulación relativa a la Junta a partir de la mencionada fecha, llegando hasta la redacción actual aprobada en el año 2002.

A partir de este análisis, los autores se centran en enunciar las materias más relevantes a su juicio sobre las que se espera un pronunciamiento de la Junta y en analizar los aspectos que consideran más reseñables, fundamentalmente el problema suscitado por la posible laguna existente en nuestras normativas respecto de los conflictos que puedan surgir entre alguna de las Diputaciones Forales y la Hacienda Foral de Navarra, así como algunos aspectos concretos relativos al Reglamento de la Junta Arbitral.

La segunda colaboración del presente número la firma Gemma Martínez Bárbara, Jefa del Servicio de Política Fiscal de la Diputación Foral de Bizkaia. Este trabajo, titulado "Vías de resolución de discrepancias entre las administraciones tributarias en relación con la domicilia-

bildu dira.

Aipa ditzagun orain Zergak aldizkariaren zenbaki honetako azterlanak eta kolaborazioak. Hiru kolaborazio daude eta bi iazko apirilean abiatu zen Kontzertu Ekonomikoaren Arbitraje Batzaren ingurukoak dira, bakoitzak bere lotura maila daukala.

Bataren izenburua "La Junta Arbitral del Concierto Económico: pasado, presente y futuro" da eta Zuzenbideko lizentziatu eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuko teknikari Isabel Alonso Anduizak eta Luis J. Izquierdo Pérezek idatzi dute. Kontzertu Ekonomikoaren Arbitraje Batzordearen figura aztertu dute, Kontzertu Ekonomikoa dela eta administrazioen artean sortzen diren auziak ebatzi behar dituen arbitrajeko organoa den aldetik. Lehenbizi, aurrekari historikoak aipatzen dituzte, hain zuzen ere nola konpondu ziren 1981 baino lehenagoko kontzertuak zirela eta administrazioen artean gertatu ziren gatazkak, eta gero harrezkero Batzaren inguruko arautegiak izan duen bilakaera landu dute, 2002. urtean onetsi zen egungo testura heldu arte.

Analisi hori abiaburutzat hartuta, autoreek beren ustez Batzak luze gabe ebatziko dituen gai garrantzitsuenak aipatu dituzte, eta arreta berezia eman diete foru aldundien eta Nafarroako Foru Ogasunaren arteko auzien inguruan gure arautegietan egon litekeen hutsunari eta Arbitraje Batzaren araudiko alderdi jakin batzuei.

Beste kolaborazioa Bizkaiko Foru Aldundiko Zerga Politikako Zerbitzuko buru Gemma Martínez Bárbarak idatzi du. Lanaren izenburua "Vías de resolución de discrepancias entre las administraciones tributarias en relación con la domiciliación de los contribuyentes en el Concierto Económico" da eta bertan egileak zerga administrazioen arteko gatazka-sorburu handienetako bat konpontze-

ción de los contribuyentes en el Concierto Económico”, analiza los procedimientos de solución de una de las causas más comunes de conflicto entre las Administraciones tributarias: la domiciliación de los contribuyentes. Como es sabido, el domicilio fiscal constituye, de forma directa o, en otros casos, de forma indirecta, el principal punto de conexión a la hora de delimitar la competencia normativa y exaccionadora en la mayor parte de los tributos, lo que “asegura” la presencia de discrepancias entre administraciones, máxime en una cuestión en la que los elementos de hecho juegan un importante papel.

La autora analiza los procedimientos puestos en marcha por las Administraciones para solventar estas diferencias en el marco del Concierto Económico, subrayando la existencia tanto de procedimientos amistosos de resolución de conflictos, derivados de los acuerdos refrendados por la Comisión Mixta del Concierto Económico en julio de 2007, como de procedimientos arbitrales, derivados de la efectiva puesta en marcha de la Junta Arbitral del Concierto Económico.

Además, y ya dentro del ámbito de la Diputación Foral de Bizkaia, la autora analiza las actuaciones que esta Diputación ha desarrollado, vía instrucción o Decreto Foral, en esta materia, completando así un procedimiento que dota de mayor seguridad jurídica y claridad las actuaciones de los contribuyentes y de la Administración tributaria en esta materia.

Surge por último también el mismo interrogante planteado en el artículo anterior: ¿cuál es el procedimiento a aplicar en los conflictos que puedan surgir, en este caso en materia de domiciliación, entre alguna de las Diputaciones Forales y la Hacienda Foral de Navarra?

La última colaboración incluida en el presente número se denomina “El régimen especial aplicable en el IVA a los servicios prestados por vía electrónica: principales cuestiones.” Su autor, es Juan Calvo Vérguez, profesor de la Universidad de Extremadura. El autor analiza en profundidad este régimen especial en el IVA, que pretende

ko prozedurak aztertu ditu, hau da, nola konpon daitezkeen zergadunen helbideratzeak direla eta sortzen diren gorabeherak. Gauza jakina da zerga gehienetan zergadunen zerga egoitza dela, zuzenean zein zeharka, arauak ezartzeko eta zerga ordainarazteko ahalmena zein administrazioari dagokion zehazteko erabiltzen den datu nagusia. Bada, horrek berekin ekarri ohi ditu administrazioen arteko ezbaiak, batez ere egitate elementuek eragin handia dutelako.

Autoreak aztertu du nolako prozedurak abiarazi dituzten administrazioek Kontzertu Ekonomikoaren esparruan helbideratzeen inguruan gertatzen diren auziak konpontzeko, eta azpimarratu du gatazka horiek konpontzeko alde batetik adiskidetze prozedurak erabiltzen direla, hau da, Kontzertu Ekonomikoaren Batzorde Mistoaren 2007ko uztailen berretsitako akordioen ondoriozko prozedurak, eta bestetik arbitraje prozedurak, Kontzertu Ekonomikoaren Arbitraje Batza lanean hasi denetik.

Gainera, Bizkaiko Foru Aldundiaren esparrura mugatuta, egileak aztertu du zer egin duen aldundi horrek jarraibideen zein foru dekretuen bitartez arlo honetan segurtasun juridikoa hobetzeko eta zergadunen eta Zerga Administrazioaren jarduketak argitzekeo.

Azkenik, aurreko artikuluko galdera bera egin du: zer prozedura aplikatu behar da zergadunen helbideratzeak direla eta foru aldundien eta Nafarroako Foru Ogasunaren artean sortzen diren auziak ebazteko?

Zenbaki honetako beste kolaborazioaren izenburua “El régimen especial aplicable en el IVA a los servicios prestados por vía electrónica: principales cuestiones” da. Extremadurako Unibertsitateko irakasle Juan Calvo Vérguezek idatzi du. Autoreak sakon aztertu du BEZaren araubide berezi

la tributación en destino de los servicios prestados en forma digital por operadores no establecidos en el ámbito IVA de la Unión Europea a destinatarios finales domiciliados en la Unión Europea. Para ello el autor, tras realizar una serie de consideraciones generales sobre este régimen, analiza, tanto desde la perspectiva de la normativa comunitaria como de la normativa interna, su ámbito subjetivo y objetivo, las obligaciones formales y registrales a los sujetos pasivos que se acogen a este régimen que comporta, además de analizar las obligaciones que impone, tanto en materia de transmisión de información como de reparto de la recaudación entre los Estados miembros en cuyo seno se realicen las operaciones sujetas a este régimen.

La sección de Referencias contiene en primer lugar una serie de resoluciones de la Junta Arbitral del Concierto Económico que revisten, en nuestra opinión, especial interés por los criterios interpretativos sobre los puntos de conexión del Concierto que este órgano arbitral está aportando.

En segundo lugar se incluyen las consultas tributarias que han sido informadas por el Órgano de Coordinación Tributaria, según dispone el artículo 14 de la Ley 3/1989, de 30 de mayo, de Armonización, Coordinación y Colaboración Fiscal: *“A los efectos de conseguir la coordinación de los criterios que se sustentan por las Administraciones tributarias de los Territorios Históricos, las consultas vinculantes se evacuarán previo informe del Órgano de Coordinación Tributaria ...”*.

Por último, el apartado Estadísticas contiene el informe elaborado por el Jefe del Servicio de Gestión de Ingresos y Análisis Recaudatorio del Departamento de Economía y Hacienda del Gobierno Vasco, Juan Carlos García Amezaga, sobre la recaudación por tributos concertados de las Diputaciones Forales correspondiente al periodo enero-julio de 2009.

La sección de “Información desde la Administración” acompaña una relación de la normativa tributaria que ha

hori; haren arabera, Europar Batasuneko BEZaren eremuan ezarrita ez dauden eragileek egoitza Europar Batasunean duten jasotzaileei modu digitalan egiten dizkieten zerbitzuak destinoan kargatuko dira. Hain zuzen ere, lehenbizi araubidearen inguruko gogoeta orokor batzuk egin ditu eta gero haren eremu subjektiboa zein objektiboa aztertu ditu, Batasuneko arautegia zein barrukoa kontuan hartuta, bai eta araubideari heltzen dioten subjektu pasiboen betebeharrak eta erregistralak, eta araubideak berekin dakartzen betebeharrak ere (informazioa eman beharra eta eragiketen gaineko kargak haiek egiten diren estatuen artean banatu beharra).

Aipamenak atalean, lehenbizi Kontzertu Ekonomikoaren Arbitraje Batzaren ebazpen batzuk ageri dira. Gure ustez interes berezia dute, Kontzertuaren lotura-puntuen interpretaziorako irizpideak finkatu dituztelako.

Ondoren, Zergak Koordinatzeko Organoak jakinarazi dituen zergei buruzko kontsultak ageri dira, Zerga Bateratze, Koordinazio eta Elkarlanari buruzko maiztaren 30eko 3/1989 Legeko 14. artikulua xedatzen duenarekin bat etorritik: *“Lurralde Historikoe-tako zerga Administrazioek darabiltzaten irizpideen koordinazioa lortzeari begira, kontsulta lotesleak Zergak Koordinatzeko Organoaren txostenaren ondoren argituko dira...”*

Azkenik, Estatistikak atalean foru aldundiek 2009ko urtarriletik ekainera bitartean itundutako zergekin bildutako diruari buruz Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Saileko Sarrera Kudeaketa eta Zerga Biletaren Azterketa Zerbitzuko buru Juan Carlos García Amezagak egindako txostena argitaratu da.

“Administrazioaren informazioa” atalean Araban, Bizkaian, Gipuzkoan, Euskal Autonomia Erkidegoan,

sido aprobada en Álava, Bizkaia, Gipuzkoa, la Comunidad Autónoma del País Vasco, la Comunidad Foral de Navarra y territorio común entre enero y septiembre de 2009.

Por último, como siempre, sugerimos al lector interesado en completar la información útil sobre materia tributaria foral, que acceda a los espacios destinados a este fin en las propias páginas web de cada uno de los tres territorios históricos de la CAPV (www.alava.net, www.bizkaia.net, www.gipuzkoa.net) y en la página web del Departamento de Hacienda y Administración Pública del Gobierno Vasco (www.ogasun.ejgv.euskadi.net), desde la que se puede acceder a la aplicación "Código Fiscal Foral" que ofrece una versión integrada de la normativa tributaria de los tres territorios históricos.

Nafarroako Foru Erkidegoan eta lurralde komunean 2009ko urtarriletik irailera arte onetsitako zerga arauen zerrenda jaso da.

Bukatzeko, ohi bezala, zergen arloko foru arautegiari buruzko informazio gehiago nahi duten irakurleei gomendatzen diegu EAEko lurralde historikoen web orrietan (www.alava.net, www.bizkaia.net, www.gipuzkoa.net) eta Eusko Jaur-laritzako Ogasun eta Herri Administrazio Sailaren web orrian (www.ogasun.ejgv.euskadi.net) horretarako jarrita dauden ataletan sartzeko. Eusko Jaur-laritzaren orriko "Foru Zerga Kodea" aplikazioan sartuta hiru lurralde historikoetako zerga arautegiaren bertsio integratua azter daiteke.